

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko otsailaren 5a. IX. urtea. 2.537. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Huyck Wangner enpresako langileek «borrokan» jarraitzen dute

Manifestazio jendetsua egin dute Tolosan Zizurkilgo lantegia ez ixteko eskatuz; oraingoz ez dute ezer adostu zuzendaritzarekin 03



ITZELURKIU

Inauteri giroak ez du izan etenik asteburuan

Areson, Berastegin eta Lizartzan mozorroak jantzita ibili dira azken egun hauetan 05



Lizartzan Otsolar dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. JONE AMONARRIZ

Agate Deuna eguneko doinuek eta makil hotsek izan dute protagonismoa

Eskualdeko herri askotan ohitura zaharrei tinko eusten diete, eta Agate Deunak eskatu bezala kantuan atera ziren bazkal ostetik iluntzera 03



Ikasle eta gurasoak, Albizturren. R. C.

Inaxio Perurenak hirugarren saiakera egingo 300 kiloko harriarekin

Leitzako Amazabal pilotalekuan egingo du ahalegin berria; igandean 13:00etatik aurrera saiatuko da harria bizkar gainean berdintzen 07

ONGI ETORRI IKASTOLARA

Matrikulazio epea:
Urtarrilaren 28tik
Otsailaren 8ra

Anoetako Herri Ikastola
943 65 29 32
www.anoetakoherrrikastola.net

Irurako Ikastola
943 69 43 74
www.irurakoikastola.net

Jesusen Bihotza Ikastola (Vilabona/Zizurkil)
943 69 23 21
www.jesusenbihotzalkastola.com

Laskorain Ikastola (Tolosa)
943 69 71 22
www.laskorainkastola.net

Tolosako Inmakulada Ikastetxea
943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

Uzturpe Ikastola (Obarra)
943 67 12 99
www.uzturpe.net

TOLOSALDEAKO IKASTOLAK



Aiz Orratz eta Ero Etxe elkarteak omendu dituzte bi buruhandi berrirekin

Larunbatean Tolosako pleno aretoan aurkeztu zituzten, bi elkarteei omenaldia egin eta gero

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsak bi kide berri izango ditu aurrerantzean, Ero Etxe eta Aiz Orratz elkarteei eskaintako buruhandi berriekin. Konpartsako kide guztiak bezala, hauek ere Tolosako historiaren zati txiki baten ordezkari dira, eta horrela, bi elkarte hauei omenalditxo egiteko bidea izan da, buruhandien sorrera.

Iñaki Moyuak egindako buruhandiek inauterietan ezagunak diren bi pertsonaia irudikatzen dituzte, beraz: Ero Etxe elkarteak pailazoak batetik, eta Aiz Orratz elkartearen erakusle, Poppeye marinela. Udaletxeko pleno aretoan egindako aurkezpen ekitaldia, omenaldien tartea izan zen; erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak, Ero Etxe eta Aiz Orratzeko lehendakariak eta Lore Agirre alkateordeak parte hartu zuten.

Agirrek konpartsaren lana go-raipatu eta Tolosako Udalaren izenean eskerrak eman zizkien,

1994an sortu zen Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsa

«ia bi hamarkada hauetan egindako esfortzu eta lanagatik, egogorik zailenetan ere aurrera egin baitute».

Bide beretik, Aiz Orratz elkarteak lehendakariari txapela bat oparitu zion udalak, iaz mende erdia bete baitzuen, elkarteak antolatzen duen haur danborradak. Azkenik, bi elkarteei argazki



Aurkezpenaren ondoren kalejira egin zuten. A. IMAZ

bana oparitu zien konpartsak, buruhandien argazkiarekin.

Pailazo eta marinela berria ezagutzeko irrika, ordea, haur eta gaztetxoek zuten, eta aurkezpena egin eta gero, udaletxeko balkoiti agurtu zituzten bertaratuak, kalejirarekin hasi aurretik.

1994an hasitako bidetik

1994an sortu zen Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsa, eta familia hazi da orduz geroztik. Lau erraldoi eta zazpi buruhandi osatu zuten hastapenetako talde hura, baina gaur egun, sei erraldoi eta bederatzita buruhandi irteten dira kalera.

Kide guztiak, Tolosako historiaren, jaien edo ohituren zati bat ordezkatzeko dute. Horrela, Domenjon Gonzalez de Andia eta Catalina de Tapia Anderea bikoitek, Tolosako pertsonaia historikoak irudikatzen dituzte.

Halaber, Bordondantzariak

San Joan eguneko dantzariak dartzatza gogora, eta bere ondoan joan ohi den Neskatilak, Gipuzkoako jantzi tradizionalak ditu.

Azkenik, inauteri tradizioari eskaintako bi erraldoiek, Pello eta Isabelita izenak hartu zituzten, inauterietako musika erreperitorioa oinarri hartuta.

Buruhandiei dagokienez, berriak, mitologia eta inauteriak izan dira, egilearen inspirazio iturri: Ostegun Gizen, Ostiral Mehe, Txantxo, Txilaba, Kaldereroa, Sorgina, Akerra, Aiz Orratz eta Ero Etxe dira, beraz, konpartsako bederatzita buruhandiak.

Nafarroa etorbideetik irtengo da, aurten, On Ostegun Gizen

Iaz baino parte hartzaile gehiago izango ditu, bigarren urtez kalera irtengo den Ostegun Gizeneko konpartsak

gun Gizona izango da aurtengoa, eta iaz baino kide gehiagok parte hartuko dute: «Iaz 40 inguru izan ginen, eta aurten jende gehiago aterako da».

«Zailena jarraitzea da»

Iazko inauterietan estreinakoz konpartsa antolatuta eta gero, Iñaki Moyuak, horrelakoetan, zailena jarraitzea izaten dela dio.

Bide honetan, gustura daude, gazteak asko inplikatu direla azpimarratu baitute konpartsako kideek: «Ideia berriak mantentzea oso zaila da, baina gazteenak gogotsu daude».

Horrela beraz, iazko moduan, Pintxana txarangaren atzetik joango da On Ostegun Gizenen konpartsa, itzuli ofiziala eurekin burutuz: «Ostegun Gizona izaten da, gaur egun, jendeak txarangekin salto gehien egiten duen eguna, eta beraz, itzuli ofiziala egingo dugu».

I. Urkizu Tolosa

Nafarroa etorbideko leiho batetik irtengo da, aurten, On Ostegun Gizen pertsonaia. Iaz izan zen konpartsaren estreinaldia, eta «harrera oso ona» izan zuenez, berriro irtengo dira aurten.

Horrela, beraz, ostegunean 11:00etan Karlos Muñoa txaranga eta danborrada zuzendariaren etxean egingo du On Ostegun Gizenek, lehen agerraldia: «Tarragonak egindako habanera abestu eta joko dugu, eta hortik txupinazora kalejiran joango gara», azaldu du Iñaki Moyuak.

Konpartsaren bigarren Oste-



Gazteak gogotsu ari direla azaldu du Iñaki Moyuak. I. URKIZU

Irudia



SARRERAK EZ DIRA INTERNETEZ SALDUKO

Zezen plazarako sarrerak ez dira Internet bidez salduko. Izan ere, www.barrabarra.eu webgunearekin arazo teknikoak izan dira eta Tolosako Udalak horregatik hartu du erabakia. Falta diren sarrerak Leidorreko leihatilan salduko dituzte gaur-

tik aurrera; 16:00etan zabalduko dute leihatila. Bestalde, atzo goizean banatu zituzten udaltzaingoan zezen plazara txarangekin sartzeko gonbidapenak (irudian). Ordu erdi inguruan agortu ziren txartel guztiak. ITZEA URKIZU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Huyck Wangner enpresako langileek «borrokan» jarraituko dutela diote

Zizurkilgo lantokia ez ixteko eskatuz manifestazio jendetsua egin dute Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Tolosako kaleetan *Perot ez itxi* oihua zabaldu zen larunbat eguerdian. Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko (garai bateko Perot) langileek deituta, manifestazioa egin zuten eta herritar asko gerturatu zen deialdira. Manifestazioa Trianguloatik abiatu zen eta baita bertan amaitu ere. Mobilizazioa bukatzerakoan lantegiko hainbat behargin kultur etxeko balkoian zeuden zain, eta horietako batek herritarrei emandako babesa eskertu zien. Era berean, «borrokan» jarraitzeko prest daudela esan zuten: «Silik eta etxean nahi gaituzte, eta gaur, ez gaudela prest esan diegu Amerikako Estatu Batuetan eta Alemanian egoitzak dituzten Xerium multinazionalako jabeei».

Lehen bilera

Manifestazioa Zizurkilgo lantegiko langileen batzordearen eta multinazionalaren zuzendaritzaren arteko lehen bilera eta gero egin zuten. Bileran ostiralgoizean egin zuten. Mikel Zabaletak, Tolosaldeko ELAren metalgintzako ordezkariak, esandakoaren arabera, ez zuten ezer adostu: «Oraingoz ez da ezer itxi, enpresa ez da konprometitu ezertara, beraz, aurrera jarraituko dugu, eta ikusiko dugu negoziazio prozesuak zer ematen duen».

Enpleguaren inguruan baino ez zuten hitz egin enpresa burue-



Tolosako kaleetan egindako manifestazioa. A. IMAZ

kin: «Guk lanpostuak mantendu nahi ditugu, beraz ez dugu itxieraren nahiz kalte ordainen inguruan hitz egin nahi izan». Sindikatuen esanetan, Zizurkilgo

lantegia bideragarria da, eta bideragarritasun horretan oinarritu dute negoziazio guztia.

Urtarrilaren 25ean aurkeztu zuten enpresak enplegu erregulazio espedientea, eta oraingoz, langileek formalki jaso duten informazioa da 81 lanpostuetatik 75 desagerrarazteko helburua dutela.

Ostiralekoaren ondotik bilera gehiago etorriko direla dio Zabaletak: «Zuhurtziaz jokatu behar dugu, azken bileretan ikusiko baita enpresak zer nahi duen».

Urtarrilaren 28a geroztik Zizurkilgo lantegiko langileak greba mugagabea daude. Urtarrilaren 21ean jakin zuten 81 langiletik 75 kaleratu nahi dituztela.

■ Ikusi larunbateko manifestazio bideak.



Irudia ◊ Amasa-Villabona



ZELARAINI ONGI ETORRIA

Billabonatarrek kartzelan 26 urte pasa dituen Pello Zelarain herriki-deari ongietorria eman zioten herenegun goizean. Lehenengo Behar Zana taldearen eskutik Errebote partida egin zuten eta Zelarainek egin zuten ohorezko saka. Partida baino lehen jokalariekin batera argazkia ere atera zuten (Zelarain, zutik, ezkerretik bigarrena). Ekitaldia eta gero bazkaria egin zuten sagardotegi batean. J. AMONARRIZ

Irudia ◊ Anoeta



AGATE DEUNA OSPATUZ

Agate Deunaren bezperan, atzo, asko izan ziren kalera kantatzera atera ziren herritarrik. Albizturen haurrak eta gurasoak atera ziren, eta jasotako dirua eskolako beharretara bideratu zuten eta Anoetan (irudian) Loatzoko musika eskolako musikariek batera atera ziren. Bertsolariek ateratzen diren herriak ere badira, Alegia eta Leitzaldea, esaterako. R. CALVO

Miel Mari Elozegi 'Luze' finalaurrekora sailkatu da

Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa irabazita martxoaren 9an aritzeko txartela eskuratu du leitzarrak

Erredakzioa Leizta

Leitzako Miel Mari Elozegi *Luze*-k Nafarroako Bertsolari Txapelketako Aldatzeneko bigarren saioa irabazi zuen herenegun. Ondorioz, zuzenean martxoaren 9an Elizondon jokatu den

finalaurrekora sailkatu da bertsolaria. Larunbatean beste saio bat egon zen eta bertan Xabier Silveira nagusitu zen, finalaurrekoan izango delarik.

Aldatzeneko saioa

Aldatzeneko hasierako agurra Larraungo bertso eskolako kideek eman zuten. Horren ostean, saio puntuagarriari hasiera eman eta horretan betaranoek beren eskarmentuari fruitu ederra atera zioten.

Lehia estua izan zen *Luze* eta Jon Barberenaren artean. Azke-

nean, kartzelako ariketa erabakigarria izan zen eta leitzarrak lortu zuten lehen postua. Bigarren Jon Barberenak egin zuen eta hirugarren, Iñigo Olaetxeak.

Bertsolari gazteenen saioa gorabeheratsuagoa izan zen. Iker Gorosterrazentzat izan zen laugarren postua eta Patxi Castilloarentzat, bosgarrena. Oskar Sanz de Acedok seigarren egin zuen txapelketako bere lehen saioan.

Txapelketak hurrengo asteburuan izango du segida, Larrainzar eta Iturenen egingo diren beste bi azken-laurdenekin.



Miel Mari Elozegi *Luze* hereneguneko saioan. NAFARROAKO BERTSOLARI ELKARTEA

Tolosa



«INDARKERIA SEXISTARI EZ»

Iragan astean Nafarroako Antsoainen 42. urteko emakumea erail zuten, eta Tolosan, larunbatean, ekimenak antolatzea egin zuten indarkeria sexistari salatzeko, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxoako plataformak deituta, Trianguloa plazan. **A.M.A.Z.**


Tolosa



SAN BLAS AUZOAN JAIK

Tolosako San Blas auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan, eta chi bezala, auzoaren biena duten erroslak banatu dituzte. Egitarauari dagokionez, haur jolasak, toka txapelketa, aizkolariak, bertsolariak eta abar izan dituzte. **A.M.A.Z.**

Tolosa



ZUHAITZ EGUN EURITSUA

Zuhaitz Eguna ospatu zuten larunbatean Tolosan, urteko lehen azoka berezia. Guztira, Euskal Herri osoko hamasei landare mintegi elkaru ziren Trianguloan, euren produktuekin. Eguraldia ez zuten lagun izan, eta jendea atepa bila ibili zen zuhaitzen artean. **A.M.A.Z.**

Kaldereroak



ZARTAGINA ETA MAILUAREN BURRUNBA

Tolosako inauterien atarian kaldereroak iristen dira kalera eskualdeko hainbat herritan, hucdiatan Tolosa, Zizurkil eta Anostako itxoak ikus daitezke, baina besteak beste, Ibarren eta Iruan ere ospatu zituzten kaldereroak. Herri gehienetan ostrialean iriten ziren kalera itxoak, baina larunbatean ikusi zen jende gehiena, Tolosan. Anatsaldean hasi ziren zartaginak eta mailuak astintzen, kaleetan burrunba zabalduz. Atsedena Zerkausian hartu zuten, txistorra lasa jateko aprobetxatuz. **A.M.A.Z.**

Tolosa



INAUTERI ATARIKO JAIALDIA

Aiz Orratz Elkarteak urtero Haur Jaialdia antolatzen du inauteri atarian, kaldereroetan. Urtero bezala, Tolosako Leidor aretoan elkarren dira, eta besteak beste, Txantxo Lohiaketa egiten dute, hau da, hauren moztorio txapelketa. Jaialdia alaitzen, besteak beste, inauterietan ere protagonista izango den Aiz Orratz elkarteak txaranga egongo zen Leidorren. **A.M.A.Z.**

Areso, Berastegi eta Lizartza inauteri giroan ibili dira asteburuan; larunbatean eguraldiak eurekin bat egin zuen, eta ia moztorio guztiak jantzi zituen egun berean, elurra bakarrik utzi zuen armairuan.

Imajinazioz beteriko inauteriak

Astieriaz

Areso, Berastegi eta Lizartza inauteriak ospatu dituzte asteburuan. Imajinarioa nagusitu da hiru herri hauean, diruaren gaitetik, eta giroa ere ederra izan da. Larunbatean, eguraldiak jaiarekin bat egin zuen, moztorio desberdinak jantzi zuten. Fuzkia, faltsa, euris, kezka, tximistak, tximistak, armairuan ehura bakarrik utzi zuten. Berastegin haurren jaialdia hauek zegoenent, tximistak frontoiko argia itzali zuten, haurren dantzei emozioa gehituz. Areson herrian barrena ibili ziren traktore eta guri haur, gorte eta gurusoak, larunbatean. Herri-tarrek prestatutako antzerkia ikusiko aukera ere izan zuten. Igardian, azken egunean, bertsio bazkaria egin zuten anesoarrek.



Aresoko gazteek, haurrekin eta gurusekin batera, herrian zehar itzulia eman zuten larunbatean, konpartsa eta gutxi. **A.M.A.Z.**

Lizartzan, omenaldia

Inauteriak oso giro onean igaro dituzte aipatu dute Lizartza-errek. Larunbatean, dantza eta txantxoak ibili ziren, giro jatorrean. Berezik dantzariek erakutsitako maila eta festa giroa azpimarratu dituzte Lizartza. Herri-tarren parte hartzea ere zabal izan dela esan dute: «Moztorio eta gurdik konpartsa igari irten dira kalera, eta baiak oinaink ere ageri dira». Horietan ederrearen sarria, Inaxio Altamak irabazi zuen. Igardian dantzariek kalera ibili ziren puskatzen, eta plazan, omenaldia eskaini zuten. Iñaki Zubeldiari omenaldi humingarrira egotze, bai Oskar Dantza Taldeko kideek, eta baita udal ordezkariak ere. Ondoren, txokorra jatera 300 lagun joan ziren. Aurten go Leizea Saria, herriko inauteriazko helburuari eman zioten, 97 urte dituen Maria Estanlari, bazkal-tzaia joan zela. Lizartza herri-tar guztiak eskernak eman nahi izan dituzte, inauteriak aurrera atera zuten laguntzagatik.



Ekizean, Berastegiko inauterietako jaialdia eta Superman kaskabarrari begira. Eskuean, Lizartza Inaki Zubeldiari egin zioten omenaldia. **A.M.A.Z.**

TX HITZAK sarrerak

HITZAK harpedunentzat 2 sarrera ditu

Ostialek 16 • larunbata 19:15
 Donostiako kurben

LAGUN ARO GBC
 Blancos Rueda Valladolid
 saskibolari partisa

Zuhaitz parta hartzea dugu osteguna
 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.

www.mauka.eu

Oraindik jarri zara? Zuzeneko erabakia hartu! Zuzeneko erabakia hartu!

TABERNA

HAUR TXOKOA

7:30etatik 9:00etara

VILLABONAKOHEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:
 urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

HAUR TXOKOA: 7:30etatik 9:00etara

943 65 56 95

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA	15. Sestao	16p
LEHEN MAILAKO BINA KAKO PILOTA TXAPELKETA	16. Gora	3p
Ligaxka, 7. jardunaldia	Hurrengo jardunaldia	
Irujo-Zabaleta	Tolosala Hirukide-Gora	
22	Laskorain-San Jorge Santurtzi	
Jaunarena-Barriola	Egintza-Ibarra	
13	FUTBOLA	
Bengoetxea VI.a-Beroiz	ERREGIONAL OHOREZKOA	
11	20. jardunaldia	
Ezkurdia-Zubieta	Lagun Onak-Tolosa	1-1
	Sailkapena	
Hurrengo jardunaldia	1. Hernani	44p
Olaizola II.a-Zabala /	2. Real Union	43p
Bengoetxea VI.a-Beroiz	3. Oiarzun	41p
	4. Aretxabaleta	37p
Jaunarena-Barriola /	5. Berio	36p
Ezkurdia-Zubieta	6. Bergara	35p
	7. Hondarribia	31p
Sailkapena	8. Touring	29p
J	9. Tolosa	26p
I	10. Aloña Mendi	24p
1. Irujo-Zabaleta	11. Ostadar	23p
7	12. Trintxerpe	23p
6	13. Arrasate	21p
2. Bengoetxea-Beroiz	14. Beti Gazte	20p
7	15. Urola	19p
5	16. Lagun Onak	19p
3. Olaizola-Zabala	17. Aurrera	18p
7	18. Zarautz	17p
4	Hurrengo jardunaldia	
4. Titin-Merino	Tolosa-Ostadar	
7	SASKIBALOIA	
3	LEHEN MAILA	
5. Berasaluze-Albisu	16. jardunaldia	
7	Bide Bide	68
3	Servical	66
6. Jaunarena-Barriola	Sailkapena	
7	1. Asesoria SAF	12-4
2	2. Lizuan.com	11-5
7	3. Atletiko Sn Sn	11-5
2	4. Mikeldi	10-6
7	5. Askartza	10-6
1	6. Araberi	9-7
8. Arretxe-Begino	7. Tabiraco Baque	9-7
7	8. Bide Bide Donostia	9-7
1	9. Mondragon unib.	8-8
EUSKAL HERRIKO PILOTA	10. Padura	8-8
TXAPELKETA (Aurrera Saiaz)	11. Lagunak	7-9
Kadeteak	12. Biok zerbitzuak	6-10
Urdapilleta (AS)	13. Servical	6-10
Amurrio	14. Leihoak Zarautz	5-11
7	15. Autocares Arieda	5-11
Txapagain	16. Fundacion 5+11	2-14
14	Hurrengo jardunaldia	
Peña-Mendia (AS)	Padura-Bide Bide Donosti	
22	SENIORRAK	
Jubenilak	15. jardunaldia	
Huarte	Soraluze	54
22	Take Orbela	58
Aburuza (Aurrera Saiaz 2)	Hurrengo jardunaldia	
3	Take Orbela-DKS	
Huarte	Sailkapena	
22	1. Bosteko Iraul	27
Larrea-Erasun (AS 1)	2. Take Orbela	27
17	3. Alde Zaharra	27
Mujika-X. Imaz (AS 3)	4. Atletiko Sn Sn	25
22	5. Santo Tomas Lizeoa	25
Lemoa	6. Errotaundi	24
14	7. Goierrri	23
22 urtetik azpikoak	8. Hernani	22
Txukun Lakua		
22		
Elustondo (Aurrera Saiaz)		
6		
E. Labaka-I. Labaka (A 5)		
22		
Oberena		
10		
Senlorrak		
Esnaola (Aurrera Saiaz)		
12		
Real Sociedad		
22		
Arratibel (Aurrera Saiaz)		
22		
Aralar Mendi		
8		
Bixintxo-Galarraga (A 5)		
19		
Maetz		
22		
ARETO FUTBOLA		
HIRUGAREN MAILA		
18. jardunaldia		
Ibarra-Soloarte		4-2
Gora-Laskorain		5-7
Zarautz-Hirukide		2-5
San Jorge-Egintza		8-4

Rekondok eta Azurmendik ezin izan dute joaneko saioa irabazi

Nazabal eta Zubiaga gailendu dira Leitzan jokaturiko saioan; Otaegi eta Otañorekin finalerako faborito dira

I. Terradillos Leitza

Nazabal eta Zubiaga gailendu dira Urrezko Aizkorako finalurreko joaneko saioan, Jon Rekondo leitzarra eta Iñaki Azurmendi beasaindarraren aurka. Etxarri Aranazkoak eta Araiakoak erraz irabazi zuten herenegun Leitzan

jokatu zuten saioa, argi utziz finalerako bikote faboritoa direla.

Lehen proban, 45 ontzako enborra Rekondok eta Azurmendik ebaki zuten kolpe gutxiagorekin, baina, bigarren goian, bi 45 ontzako erlojuz kontra ebakitzen Nazabal eta Zubiaga gailendu ziren. Hirugarren lanean, bikote bakoitzak kana erdiko bat ebaki behar zuten zutik jarrita, eta lan hori egin ezin zuten jokatu zuten. Nazabal eta Zubiaga gailendu ziren. Hirugarren lanean, bikote bakoitzak kana erdiko bat ebaki behar zuten zutik jarrita, eta lan hori egin ezin zuten jokatu zuten. Nazabal eta Zubiaga gailendu ziren. Hirugarren lanean, bikote bakoitzak kana erdiko bat ebaki behar zuten zutik jarrita, eta lan hori egin ezin zuten jokatu zuten.

Laugarren lanean, abiadura proban, Nazabal eta Zubiaga izan ziren bizkorrenak. Dena den, sailkapen orokorrean Rekondok eta

Azurmendik jarraitzen zuten. Hurrengo proban, ordea, Nazabal eta Zubiaga zortzi segundoko aldearekin aurreratu ziren, eta azken proban alde hori areagotzea lortu zuten. Lan guztia amaitzeko 22 minutu eta 34 segundo behar izan zituzten Nazabalek eta Zubiagak eta Rekondok eta Azurmendik 24 minutu eta 24 segundo.

Finalerdietako joaneko bi saioak jokatu dira, beraz. Lehenengoan, Otaegi eta Otañok irabazi zuten, eta bigarrenean, herenegun goian, Nazabalek eta Zubiagak. Bi bikote horiek dira finalerako faborito nagusiak.

Barriolak eta Jaunarenak Tolosan jokatu dute, Astelenitan

Binakako Pilota Txapelketako zazpigarren jardunaldiko partidak galdu dituzte leitzarrek

I. Terradillos Leitza

Ez da asteburu ona izan Leitzako pilotarientzat. Binakako Pilota Txapelketako zazpigarren jardunaldiko partidak jokatu dituzte Bengoetxeak Beroizekin batera, eta Barriolak eta Jaunarenak, eta

ezin izan dituzte euren arerioak garaitu.

Lehenek Ezkurdia-Zubietaren aurka jokatu zuten, eta 22-11 galdu zuten. Bengoetxea eta Beroiz jarri ziren aurretik, 6-1, baina aurkariak orduan 10 tanto jarraian egin zituzten. Bengoetxea partidatik ateratzea lortu zuten, eta leitzarrek erasora jo zuenean ez ezin zuten irabazi. 11-18 jartzera iritsi ziren, baina Bengoetxeak eta Beroizek ezin izan zuten tanto gehiago egin.

Bestalde, Barriolak eta Jaunarenak 22-13 galdu zuten Irujo eta

Zabaletaren aurka. Barriola gor eraso eta nekarazi zuten, eta hori nabaritu egin zuten markagailuan. Jaunarenak, gainera, ez zion gehiegi lagundu kideari.

Hurrengo partidak

Hurrengo jardunaldiari dagokionez, Bengoetxeak eta Beroizek Olaizola eta Zabalen aurka jokatu dute larunbatean Iruñean. Barriolak eta Jaunarenak, berriro, Tolosako Beotibarren jokatu dute, Ezkurdia Zubietaren aurka, Inauterien barruan, Asteleñita egunez.

Irudia



TAK-EKO TALDEEN AURKEZPEN EKITALDIA

Tolosaldeko Arraun Kluba hasi da denboraldi berriarekin. Hala, lehia hasi aurretik, Arraun Federatu Txapelketan parte hartuko duten gazteen aurkezpena egin dute. Gipuzkoako 76 batel ariko dira lehia, eta horietatik 12 izango dira Tolosaldekoak: etorkizuneko mailako nesken lau ontzi,

infantilen bi, kadeteen bi, jubenil nesken bi eta jubenil mutilen beste bi. Orotara, 90 kirolari ariko dira. Aurkezpenaren egunean, taldeko teknikariek aurtengo asmoen eta egoeraren berri eman zuten. Taldeetako kideez gain, gurasoek ere parte hartu zuten ekitaldian. HITZA

Inaxio Perurenak igandean egingo du saiakera Leitzan, 300 kiloko harriarekin

Amazabal pilotalekuan izango da, 13:00etatik aurrera; harri honekin egiten duen hirugarren ahalegina izango da

Iñigo Terradillos Leitza

Inaxio Perurena harri jasotzaileak marka ahalegina egingo du datorren igandean, hilaren 10ean, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 13:00etatik aurrera. 300 kiloko harria altxatzen saiatuko da, beste behin, leitzarra.

Oraingo honetan ere bost minutuko txanda izango du harri jasotzaileak harria bizkarrean berdintzeko. 300 kilokoarekin egiten duen hirugarren ahalegina izango da. Lehen saiakera Asteasun egiten zuen Perurenak. Harria jaso ondoren, bizkarrean berdintzen ari zela, atzera erori eta harria hautsi egin zitzaion. Bigarren



Inaxio Perurena, bere azken saiakeran. JONE AMONARRIZ

saiakera, berriz, iragan azaroan egin zuen, Leitzan, bertan. Harriarekin bi ahalegin egin ondoren, amore eman beharra izan zuen. Urtarrilaren 20rako iragarri zuen hirugarren ahalegina egingo zuela, baina, azkenean proba bertan behera utzi zuen lei-

tzarrak, gaixorik aurkitzen zelako.

Saiakera honetan harria bizkarrean berdintuz gero, Inaxio Perurena, Iñaki Perurena aitaren eta Mieltxo Saralegiren taldean sartuko litzateke, hau da, 300 kiloko harria jaso dutenen artean.

Otaegi Senosiainek botatako desafioaz hitz egiteko prest dago

Kantabriko tabernan egin dute hitzordua apostuaren nondik norakoak zehazteko, bihar iluntzean

I. Terradillos Zizurkil

Antonio Senosiain aizkolaria desafioa bota zion Joseba Otaegiri, eta zizurkildarra Olaguekoarekin (Nafarroa) hitz egiteko prest azaldu da. Azaldu duenaren arabera, bihar egin dute hitzordua Tolosako Kantabriko tabernan apostuaren nondik norakoak zehazte aldera.

Senosiainek 20 kana-erdikora jokatzeko prest zegoela adierazi zuen. Enborrak berak plazaratzeko prest azaldu da, eta 6.000 euro jokatuko lituzkeela alde bakoitzak adierazi du. Desafioaren gainerako xehetasunak bihar iluntzean Kantabriko tabernan hitz egingo litzateke bi aizkolariek.

Hain zuzen ere, urteko lehen

apostua pasa den igandean jokatuko zuten, Tolosako zezen plazan. Jon Irazu zizurkildarra eta Xabier Zaldia zumarragarra jarri zituen desafioak aurrez aurre. Zizurkildarra izan zen garaile, 28 segundoko aldearekin, eta berak eraman zituen jokoan zeuden 12.000 euroak.



Joseba Otaegi. HITZA

Intxurre eta Suberri Euskal Herriko onenak

Jubeniletan Murua eta Senperenak irabazi dute eta senior mailan, Garmendiak eta Mendizabalek

I. Terradillos

Euskal Herriko Elkartearen Arteko Emakumeen Paleta Txapelketa amaitu berri da, eta bertan Alegiako Intxurre taldea eta Anoetako Suberri izan dira nagusi.

Hain zuzen ere, jokatu berri dituzte finalak Etxarri Aranatzan, eta jubencil mailan Intxurre taldeko Mari Muruak eta Maialen Sen-

perenak 30-11ko emaitzarekin irabazi zieten Anoetako Suberriko Igone Gutierrez eta Garazi Eizmendi. Intxurreko neskek hasieratik hartu zuten abantaila, eta erosotasunez lortu zuten garaipena 42 minutu iraun zuen partidaren.

Senior mailan, bestalde, Suberri taldeko Ainhoa Garmendia eta Maider Mendizabal izan dira txapelketa. Oberena taldeko Yanira Aristorena eta Maite Ruiz Larramendi 30-24ko emaitzarekin mendean hartu ostean. Partida nahiko orekatua izan zen erdialdera arte, baina hortik aurrera, Suberriko neskek izan ziren nagusi.



Irabazleak, sari banaketan. HITZA

Pilota eskolan ari diren haurren gurasoak deitu ditu bilerara Tolosako Udalak

I. Terradillos Tolosa

Tolosako Udalak bilerara deitu ditu pilota eskolan parte hartzen duten haurren gurasoak. Eguno egoera argitzea eta udalak hartutako erabakien berri ematea da batzarraren helburua. 2013-2014 ikasturtearen bideragarritasuna eta antolaketa ere izango dute hizpide. Bilera bihar izango da, Kultur Etxeko areto nagusian, 18:00etatik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

BESTELAKOAK

- **Amezketeta.** Gaur, 19:30ean udaletxe azpian bilduko dira Talai dantzen entsegua egiteko. Parte hartu nahi duen oro gonbidatu dute, eta egunean bertan ere agertu daiteke.
- **Berastegi.** Gaur, hilak 5, 21:00etan batzorde berezia izango da udal bulegoetan. Batzarrean udaletxe zaharrean zeuden altzarrietatik berrirako erabilgarriak zeintzuk diren aukeratu da. Horretarako, herri-tarren parte hartzea nahi dute aukeraketan laguntzeko.
- **Tolosa.** Bularreko minbizia goiz detektatzearen inguruko hitzaldia izango da, gaur, kultur etxean, 17:30ean.
- **Tolosa.** Gaur, hilak 5, Bai Euskal Herriari herri ekimenak deituta, kultur etxean bilera izango

da, 18:30ean. Gaia ia udal gutietara espainiar bandera jartze-ko abisua iritsi dela izango da. Tolosaldeko talde eragile, alderdi eta elkarteetako ordezkariak zuzendua izango da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Bengoetxea, E. Kale Nagusia 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



Aurrekularia Ane Irazusta eta atzeskularia Olatz Ausin izan ziren. A. IMAZ

Sokaz elkartuta dantzan

Agurrak



Zorionak!

Uxue Munduate Zabala (Anoeta).
Zorionak sorgintxo. Atzo 6 urte.
Muxu handi bero bat zure anaia Aitorren partetik.



Urte askoan!

Tere Albizu (Tolosa). Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Larunbatean Dantza Soka Eguna ospatu zuten anoetarrek; lehenik baserrez baserri eta ondoren, plazan

Erredakzioa

Kalderero egunez ospatzen dute Dantza Soka Eguna, Anoetan. Larunbatean eguraldiak asko lagundu ez arren, goizean goiz atera ziren dantzariak baserrez baserri musika eta dantzak eskaintzera.

Eguerdiaren urtero moduan, herriko plazan elkartu ziren 60 bat dantzari. Neska eta mutil, guztiek batera egiten dute dantzan. Aurtan, Ane Irazusta izan zen aurrekularia eta Olatz Ausin atzularia. Bakoitzak, berak nahi zuen pertsonari agurra dantzatze-ko aukera izan zuten.



Txandaka-txandaka guztiek egiten dute dantza. A. IMAZ

Ikusle jendea ere dantzara gehitzen joaten da, eta plaza bete jende aritu zen dantzan. Bazkaria izan zuten ondoren, eta jarraian, festa iluntzera arte luzatu zen Anoetan, kalejira eta Gugaz taldearen erromeriarekin.



■ **Bideoa.**
Dantza soka eguneko bideoa ikusgai dago webgunean.

inauteriak 13

Bizi inauteriak hitza rekin!

Sartu tolosaldea.hitza.info webgunean eta inauterien atalean informazio guztia izango duzu: egitaraua, albisteak, elkarrizketak, bideoak, bitxikeriak, garraio publikoaren inguruko informazioa, farmaziak...

*Inauterietan HITZA egunero argitaratuko dugu

Eta gogoratu Ostegun Gizeneko txupinazoa zuzenean jarraitu dezakezula, tolosaldea.hitza.info webgunean.